

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

—
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN



SARRERA

Gazteen Euskal Behatokiak argitaraturiko [Gazteen argazkiak 27](#) (2024) txostenaren arabera, lan-merkatuari eta etxebizitzari loturikoak dira, gazteen ustez, Euskadiko arazo nagusienetakoak. Zehazki, gazteen % 37k aipatzen ditu lan-merkatuari loturikoak, eta % 36k etxebizitzarekin zerikusia dutenak. Agerikoa da auziok emantzipazioarekin duten lotura. Are, kezka ez da harritzekoa, 2024an, [Emantzipazioaren giltzak Euskadin](#) txostenenaren emaitzen arabera, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,2 besterik ez baitzegoen emantzipatuta.

Auziaren garrantziaren jakitun, **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)** hamarkadak daramatza gazteen emantzipazioa aldarrikapenen lehen lerroan izaten, ekarpenak egiten eta hobekuntzak proposatzen. Helburuak gazteen kalitatezko enpleguak defendatzea eta etxebizitza duinetarako sarbidea bermatuta izatera heltzea dira, horrekin, bizi-proiektu autonomo baten oinarriak finkatzeko.

Testuinguru horretan, administrazioek gazteen emantzipaziora bideratutako neurri edota diru-laguntza ezberdinak dituzte: baita udal administrazioek ere. Ordea, EGK-k 2020an eginiko Gazteen Etxebizitza Egoera Ezagutzen txostenean agerian geratu zen bezala, askotan gazteek ez dituzte ezagutzen udalek eta bestelako administrazioek eskaintzen dituzten laguntza eta aukerak.

Horrela hasi zen EGK, 2019an, gazteen emantzipaziora bideratutako udal administrazioek ematen dituzten laguntzak bildu, aztertu eta gazteentzat informazio irisgarria osatzen. Zehazki, mapa interaktibo bat sortu zuen EGK-k, zeinetan laguntza horiek ageri diren herriz herri. Informazio hori urtero eguneratzen da.

Txosten honetan, bada, 2025ean Gipuzkoako udalerrietan izan diren emantzipaziorako dirulaguntzak bildu dira.



EGOERAREN ANALISIA

Arestian xedatu den egoerak lotura hertsia du etxebizitza merkatuaren izaera iritsezinarekin, parke publikoaren urritasunarekin eta lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin. Aipatutakoaren adierazle argia da gazteek etxebizitza eskuratzeko egin behar duten esfortzu ekonomikoa.

Alokairu librea aztertzeke interesgarria da Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME) aztertzea. [2025eko lehen hiruhilekoko AME txostenaren](#) arabera, bada, Gipuzkoako hileko batez besteko errenta 812,8€-koa da, Euskadiko hiru lurraldeetako altuena. Are, 2025eko lehen hiruhilekoan eratutako fidantzen batez besteko errenta are altuagoa da: 859,4€-koa, hain zuzen ere.

Gaineratzekoa da udalerriaren arabera aldaera nabarmenak egon badaudela: Donostian 1.041,7€-koa da batez bestekoa, Zarautzen 913,3€-koa, Astigarragan 887,4€-koa, Hondarribian 817,4€-koa, Lasarte-Orian 811,7€-koa, Orion 786,7€-koa, Usurbilen 775,0€-koa, Pasaian 773,3€-koa, Zumaian 763,7€-koa, Irunen 763,0€-koa eta Urnietan 760,1€-koa.

Testuinguru horretan uler genezake [alokairu babestuaren eskaerak handitu](#) izana. 2025eko lehen hiruhilekoan % 1,4 hazi zen etxebizitza babestuaren alokaru-eskaria Euskadin, 79.247 eskaera izatetik 80.360 izatera pasa baitzen. Gipuzkoaren kasuan, orotara, 21.605 eskaera ziren.

Erosketaren kasuan, Higiezinen Salerosketaren Estadistika (HSEE) zaigu interesgarri. 2025eko lehen hiruhilekoko HSEE txostenaren arabera, Gipuzkoak erregistratu zuen Euskadiko batez besteko zenbateko handiena: 298.986 €, hain zuzen ere. 2024arekin alderatuta, % 6,4 handiagoa izan zen batez bestekoa 2025eko lehen hiruhilekoan.

Aipatzekoa da, kasu honetan ere, udalerriaren araberrako aldaerak nabarmenak direla. Donostian 492.482 € izan zen batez besteko prezioa. Halaber, Zarautzen 485.185 € izan zen batez bestekoa, Hondarribian 465.188 €, Astigarragan 338.541 €, Oiartzunen 317.550 € eta Orion 302.834 €.

Etxebizitza babestuaren erosketa-eskariak % 4,7 egin zuen gora Euskadin 2025eko lehen hiruhilekoan, 20.119 eskaeratik 21.068ra igaro baitzen. Gipuzkoaren kasuan, orotara, 7.531 eskaera izan ziren.

Etxebizitza babestuaren eskariari erreparatzeaz harago, interesgarri zaigu emantzipazioa laguntzen duten programa edota diru-laguntza ezberdinen eskariaren nondik norakoa aztertzea. Euskadin, bada, Gaztelagun eta Emantzipa dira laguntza horiek.

Gaztelagun laguntzari dagokionez, [2024ko Alokabideren memoriaren](#) arabera, Gipuzkoan 1.673 eskaera berri jaso ziren 2024an, eta horietatik 756 onartu ziren memoriaren argitalpen unerako. Emantzipari dagokionez, bestalde, 2024an, Gipuzkoan, 2074 laguntza eman ziren.

Lan merkatuaren konfigurazio prekarioari dagokionez, 18 eta 29 urte bitarteko gazte gipuzkoarren batez besteko hileko soldata garbia 1.377 eurokoa da. Azken urteotan Euskadiko gazteen batez besteko soldataren joera gorakorra den arren, badira aintzat hartzeko beste

datu batzuk ere: gaineratzekoa da, adibidez, Euskadiko gazteen lanaldi-partzialeko enplegu tasa % 32,2koa dela, Europar Batasuneko % 23,8 den heinean; bestalde, aldi baterako enplegu-tasari loturiko datuak ere kaxkarragoak dira Euskadin, Euskadiko gazteen % 40koa baita, Europar Batasunean % 33,6koa den heinean.

Testuinguru honetan, etxebizitza librea eskuratzeko kostua gomendatutakoa baino handiagoa da, bai Euskadiko eta baita Gipuzkoako gazteentzat ere. Izan ere, aintzat hartzekoa da etxebizitza gastuetara diru-iturrien % 30 bideratzea aholkatzen dela, eta % 40 bideratzea gain-esfortzutat hartzen dela.

Gazteen Euskal Behatokiak bildutako datuen arabera, 2024an, etxebizitza libre bat jabetzan eskuratzeko kostua (hau da, hipotekaren lehen kuota ordaintzera bideratu behar dena), hileko soldata garbiaren % 84,5 izan zen 30 urtetik beherako gipuzkoarrentzat. Etxebizitza libre bat alokairuan eskuratzeko kostua, berriz, (alokairu-errenta ordaintzera bideratu beharrekoa, alegia), hileko guztizkoaren % 62 da. Agerikoa da, bada, errealitatea gomendagarri den horretatik urrun dagoela.

GIPUZKOAKO UDALAK: dirulaguntzak

Udalerria	Laguntza
Andoain	Udalerriko gazteek etxebizitzak alokairuan hartzeko 2025eko laguntza ekonomikoen deialdia Oinarriak
Arrasate	Etxebizitza alokairua ordaintzeko dirulaguntzak gazteentzat Oinarriak
Azpeitia	Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak
Beasain	Beasaingo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak Oinarriak
Deba	Debako udalerrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak Oinarriak
Getaria	Getarian 18 eta 35 urte bitarteko gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen 2025. urteko deialdia Oinarriak
Hernani	Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak Oinarriak / Oinarriak 2025
Irura	Irurako herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak Oinarriak
Oñati	Oñatiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak Oinarriak
Tolosa	Tolosan etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak Oinarriak
Usurbil	Usurbilgo udalerrian merkatu libreko etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza
Zumaia	Zumaiaiko herrian, 18 eta 35 urte bitarteko gazteei etxebizitzak alokatzeko 2025 urteko diru-laguntzen deialdia Oinarriak
Zumarraga	Gazteen emantzipazioari diru-laguntzak Oinarriak

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Andoain

Andoaingo Udalerriko gazteek etxebizitzak alokairuan hartzeko 2025eko laguntza ekonomikoen deialdia 2025eko urriaren 28an argitaratu zen, eta 20 laneguneko epea izan zen eskaerak egiteko. Dirulaguntza, gehienez, 12 hilabetetan jaso ahal izango da, beti ere baldintzak betez gero. Laguntza hau baterazina da beste erakunde batzuek ematen dituzten errentarako-laguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.
- Errolda: Andoaingo udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunez, etenik gabe, eskaera aurkeztu den unean, edo gutxienez 3 urtez udalerrian erroldatuta egotea, etenik gabe, 10 urtean zehar.
- Diru-sarrerak: Bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren muga honako hau izango da:
 - Zergak banaka ordaintzen badira: urtean 3.000 eurotik gorako eta 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak.
 - Zergak batera ordaintzen badira edo familia ugarien edo guraso bakarreko familien kasuan: urtean 3.000 eurotik gorako eta 35.000 eurotik beherako diru-sarrerak.
- Etxebizitza Andoainen egotea eta gutxienezko bizigarritasun-baldintzak betetzea. Gehienezko errenta zehaztugabea da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Errentaren eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Dirulaguntzaren zenbatekoa hilean gehienez 300,00 eurokoa izango da eskaera bakoitzeko, gehienez ere 12 hileroko.

• Bakarkako elkarbizitza

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
3.000,00	9.000,00	300€
9.000,01	18.000,00	Errentaren % 50
18.000,01	22.000,00	Errentaren % 40
22.000,01	25.000,00	Errentaren % 30
25.000,01	27.999,99	Errentaren % 20

• Elkarbizitza familiarra

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
3.000,00	12.000,00	300€
12.000,01	20.000,00	Errentaren % 50
20.000,01	25.000,00	Errentaren % 40
25.000,01	30.000,00	Errentaren % 30
30.000,01	34.999,99	Errentaren % 20

Alokairu partekatuaren kasuan, eskatzaile bakoitza bizikidetzaren unitate independentetzat hartuko da, eta errenta (alokairua) kontratuaren sinatzaile bakoitzaren artean hainbanatuta zenbatuko da.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Arrasate

Arrasateko udalak gazteei bideratutako etxebizitza alokairua ordaintzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia 2025eko martxoaren 21ean argitaratu zen, eta 30 laneguneko epea izan zen eskaerak egiteko. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da eta, gehienez, 3 urtez jaso dezake onuradun bakoitzak, urteroko deialdietan eskaera berriak eginda. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.
- Errolda: Arrasaten erroldatuta egon izana azken 2 urteetan etenik gabe edo etenekin gutxienez 10 urtetan.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 29.000 € gordin urtean eskatzailea norbanakoa bada.
 - 40.000 € gordin urtean, eskatzailea bizikidetza unitate bat bada.
- Etxebizitza Arrasaten kokatuta egotea eta dagokien bizigarritasun baimena izatea. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez, 750 €-koa izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Errentaren eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 250 eurokoa izango da laguntza, eta 12 hilabeteko epealdirako izango da.

• Norbanakoa

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
26.000,01	29.000	% 20	100 €
23.000,01	26.000	% 30	150 €
20.000,01	23.000	% 40	200 €
1.000	20.000	% 50	250 €

• Bizikidetza unitatea

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
35.000,01	40.000	% 20	100 €
30.000,01	35.000	% 30	150 €
26.000,01	30.000	% 40	200 €
1.000	26.000	% 50	250 €

Alokairu partekatuen kasuan, eskaerak banaka aurkeztuko dira eta alokairuaren prezioa konputatuko da kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta.

Azpeitia

Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzen 2025eko deialdia 2025eko ekainaren 18an argitaratu zen, eta 2025eko urriaren 15ean amaitu zen eskaerak egiteko epea. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

- Errolda: Bizikidetza unitatea osatzen duten kideetako batek gutxienez Azpeitiko udalerrian erroldatuta egon behar du, eskaera aurkeztu den unean aurreko 3 urteetan etenik gabe, edo edozein momentutan 5 urtez etenik gabe.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 28.000,00 euro haztatu urtean (eskatzaile bakarra bada).
 - 35.000,00 euro haztatu urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira).
- Etxebizitza Azpeitiko udalerrian kokatuta egotea eta dagokien bizigarritasun baimena izatea. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez, 675€-koa izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez, hilean 350 € izango da, 12 hilabeteko epealdirako. Alde Zaharrean kokatutako etxebizitzaren kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa aipatu atal sistemaren arabera ezarriko da gehi 50 €, gehienez ere laguntza hilean 400 € izango delarik.

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
0	15.000	% 60
15.000	21.000	% 50
21.000	30.000	% 45
30.000	35.000	% 35

Alokairu partekatuaren kasuan, bizikidetza-unitate bakoitzari dagokion laguntza kalkulatzeko, etxebizitzaren hileko errenta osoa kontratuko titular kopuruaren artean zatituko da.

Beasain

Beasaingo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko laguntzen 2025eko deialdia 2025eko apirilaren 30ean argitaratu zen, eta 2025eko irailaren 30ean amaitu zen eskaerak egiteko epea. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin. Ordea, Emantzipa laguntzarekin bateragarria da.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.
- Errolda: erroldatuta egon beharko dute, eta etxebizitza hori alokatzeko eskatzen da laguntza. Urtebetez egon beharko du erroldatuta aipatutako etxebizitzan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 28.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea pertsona bakar batez osatua baldin badago.
 - 39.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea bi pertsona edo gehiagok osatuta baldin badago.
 - Norberaren kontura lan egiten dutenei urtean 22.000 euro gordinetako gutxienezko dirusarrerak aitortuko zaizkie.
- Etxebizitza Beasaingo udalerrian kokatuta egotea eta dagokien bizigarritasun baldintzak betetzea. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez, 750 €-koa izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehieneko dirulaguntza hilean 250 € izango da.

- Pertsona bakarraren kasuan**

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
26.000	28.000	% 20	100 €
24.000	25.999	% 30	150 €
22.000	23.999	% 40	200 €
	21.999	% 50	250 €

- Bizikidetzaren unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute**

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
33.000	39.000	% 20	100 €
30.000	32.999	% 30	150 €
26.000	29.999	% 40	200 €
	25.999	% 50	250 €

Alokairu partekatua kasuan, onuradun bakoitzari emateko laguntzak kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Deba

Debako udalerrian etxebizitzak alokatzeko laguntzen 2025eko deialdia 2025eko martxoaren 7an argitaratu zen, eta hilabeteko epea izan zen eskaerak aurkezteko. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.
- Errolda: Gutxienez bizikidetzaren edo familia-unitateko pertsona bat Debako udalerrian erroldatua egotea, gutxienez, aurreko bi (2) urtetan eskaera aurkezteko unean.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 30.000,00 euro bizikidetzaren edo familia-unitate batean sartuta ez dauden pertsonen kasuan
 - 38.000,00 euro bizikidetzaren edo familia-unitateen kasuan.
- Diruz lagunduko den etxebizitza Debako udalerrian kokatuta egon beharko da eta dagokion bizigarritasun-zedula izan beharko du. Gehienezko errenta zehaztugabea da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 300 eurokoa izango da.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

- **Bizikidetza- edo familia-unitate batean sartuta ez dauden pertsonak**

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
	< 24.000,00	% 35
24.000,01	30.000,00	% 25

- **Bizikidetza- edo familia-unitateak**

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
	< 38.000,00	% 25

Alokairua partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari dagokion laguntza kalkulatzeko, etxebizitzaren hileko errenta osoa kontratuko titular kopuruaren artean zatituko da.

Getaria

Getarian 18 eta 35 urte bitarteko gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen 2025eko deialdia 2025eko ekainaren 27an argitaratu zen, eta hamabost eguneko epea izan zen eskaerak aurkezteko. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte artean izatea.
- Errolda: Gutxienez Familia Unitateko pertsona bat Getariako herrian erroldatua egon izana, gutxienez 5 urtetan, eskaera aurkezteko unean.

- Diru-sarrerak:

Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:

- 28.000,00 euro gordin urtean (eskatzaile bakarra bada)
- 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira)

- Diruz lagunduko den etxebizitzak, Getariako udalerrian kokatuta egon beharko du derrigorrez eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du. Gehienezko errenta zehaztugabea da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez errentaren % 75 izango da, hilean gehienez 250 eurokoa.

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
0	15.000	% 75
15.000,01	21.000	% 55
21.000,01	28.000	% 35
28.000	35.000	% 20

Alokairu partekatua denean: alokairu partekatua denean, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Hernani

Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia 2025eko uztailaren 3an argitaratu zen, eta izena emateko epea 2025eko irailaren 1etik 30era bitarte izan zen. Dirulaguntza 12 hilabeteko epealdirako da, bete beharreko baldintzak betetzekotan. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: A-modalitatea, 18 eta 35 urte bitarte izatea.
- Errolda: laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egotea, eta Hernanin erroldatuta egotea gutxienez 6 hilabeteko antzintasunarekin etenik gabe.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 28.000,00 garbi urtean, bizikidetza-unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago
 - 39.000,00 euro garbi urtean, bizikidetza-unitatea bi pertsona edo gehiagorik osatuta baldin badago
- Diruz lagunduko den etxebizitza Hernaniko udalerrian kokatuta egon beharko da eta hirigintza onarpena izan behar du. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez 750 € izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 300 eurokoa izango da eta ez du errentaren % 50 gaitutuko.

• Pertsona bakarraren kasuan

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
26.000,01	28.000,00	% 20	135 €
24.000,01	26.000,00	% 30	190 €
22.000,01	24.000,00	% 40	245 €
	22.000,00	% 50	300 €

• Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
33.000,01	39.000,00	% 20	135 €
30.000,01	33.000,00	% 30	190 €
26.000,01	30.000,00	% 40	245 €
	26.000,00	% 50	300 €

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Irura

Irurako herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen 2025eko deialdia 2025eko irailaren 18an argitaratu zen, eta 2025eko abenduaren 30era arteko epea izan zen eskaerak aurkezteko. Dirulaguntza 12 hilabeterako emango da, eta gehienez 24 hilabetetan jaso ahal izango da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte bitarte izatea.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

- Errolda: gutxienez bizikidetza-unitateko pertsona bat lurako herrian erroldatuta egon izana, gutxienez 3 urteko etenik gabeko antzinasunarekin eskaera aurkeztu den unean, edo beste momentu batean etenik gabe 5 urtez.
- Diru-sarrerak:
Diru sarrerak, gutxienez, urteko 10.300,00 euro gordin izan behar dute, eta gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:
 - 27.000,00 garbi urtean, eskatzaile bakarra bada.
 - 39.000,00 euro garbi urtean, bi eskatzaile edo gehiago badira.
- Diruz lagunduko den etxebizitzak lurako udalerrian kokatuta egon beharko du eta gutxienezko bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez 600 € izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 275 eurokoa izango da laguntza. % 65eko desgaitasuna baino gehiago dutenen kasuan, dirulaguntza handiagoa izango da.

• Pertsona bakarraren kasuan

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza	Gehienezko dirulaguntza > % 65eko desgaitasunarekin
Kopurutik	Kopururaino			
25.000,01	27.000,00	% 15	80 €	135 €
23.000,01	25.000,00	% 20	110 €	160 €
21.000,01	23.000,00	% 30	165 €	215 €
19.000,01	21.000,00	% 40	220 €	270 €
	19.000,00	% 50	275 €	325 €

• Bizikidetza-unitatea bi pertsona edo gehiagok osatzen dutenean

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza	Gehienezko dirulaguntza > % 65eko desgaitasunarekin
Kopurutik	Kopururaino			
36.000,01	29.000,00	% 15	80 €	135 €
33.000,01	36.000,00	% 20	110 €	165 €
30.000,01	33.000,00	% 30	165 €	215 €
27.000,01	30.000,00	% 40	220 €	270 €
	27.000,00	% 50	275 €	325 €

Alokairua partekatua denean: Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza unitate independentea dela ulertuko da, eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Oñati

Oñatiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen 2025eko deialdia 2025eko otsailaren 25ean argitaratu zen, eta 2025eko urriaren 11 bitarte izan zen eskaerak aurkezteko epea. Laguntza 12 hilabeteko epealdirako da. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte bitarte izatea.
- Errolda: bizikidetza-unitateko kideetako bat azken urtean Oñatiko udalerrian erroldatuta egon izana eskabidea aurkezteko unean edo 10 urtez Oñatiko udalerrian erroldaturik egon izana.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

- Diru-sarrerak:
 - Gehienez 28.000 euro.
- Diruz lagunduko den etxebizitzak Oñatiko udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez 550 € izango da.

Laguntzaren zenbatekoa:

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu prezioaren % 50ekoa izango da, gehienez hilean 250 € laguntza eskaera bakoitzeko.

Tolosa

Tolosan etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia 2025eko maiatzaren 5ean argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 20tik irailaren 20ra artekoa izan zen. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Errolda: errentan hartutako etxebizitzan erroldatuta egotea. Horrez gain, Tolosako udalerrian erroldatuta egon behar dute ornuradunek, gutxienez 3 urteko antinatasunarekin etenik gabe eskabidea aurkezteko unean edo, bestela, beste garai batean 5 urtez jarraian.
- Diru-sarrerak:
 - Eskatzaile indibiduala: 3.000-30.000 €
 - 2 kideko familia unitateak: 3.000-35.000 €
 - 3 edo 4 kideko familia unitateak: 3.000-40.000 €
 - Familia ugariak / 5 bizikide edo gehiago: 3.000-45.000 €

- Diruz lagunduko den etxebizitzak Tolosako udalerrian kokatuta egon behar du. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa:
 - Eskatzaile indibiduala: gehienez 750 €
 - 2 kideko familia unitateak: 800 €
 - 3-4 kideko familia unitateak: 900 €
 - Familia ugariak / 5 bizikide edo gehiago: 1.000 €
- Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 300 eurokoa izango da, eta gehienez 11 hilabeterako emango da. Hirigune Historikoan edo Euskal Herria plaza ingurunearen azpiesparruan diren etxebizitzak kasuan, diru-laguntzaren zenbatekoa 350 eurokoa izango da gehienez.

Bizikidetzak unitateko kideak	Diru-sarrerak		Dirulagun- tza	Gehienezko diru laguntza	Gehienezko dirulaguntza Alde Zaharra eta EH plaza
	Kopurutik	Kopururaino			
1			% 50	300	350
	22.001	26.000	% 45	275	325
	26.001	30.000	% 40	250	300
2		24.000	% 50	300	350
	24.001	28.000	% 45	275	325
	28.001	35.000	% 40	250	300
3 edo 4		26.000	% 50	300	350
	26.001	32.000	% 45	275	325
	32.001	40.000	% 40	250	300
5 edo gehiago		28.000	% 50	300	350
	28.001	36.000	% 45	275	325
		45.000	% 40	250	300

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Alokairua partekatua denean: etxebizitza partekatzen duten guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentetzat hartuko da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta kontutatuko da errenta (alokairua).

Usurbil

Usurbilen etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia 2025eko otsailaren 14an argitaratu zen, eta 20 laneguneko epea izan zen eskaerak aurkezteko. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 urtetik gorakoa izatea.
- Errolda: bizikidetza-unitateko kide guztiek egon behar dute etxebizitzan erroldatuta.
- Diru-sarrerak:
 - Onuradun bakarra: 3.000-28.000 €
 - Bi onuradun edo gehiago: 3.000-35.000 €
- Diruz lagunduko den etxebizitzak Usurbilgo udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion hirigintza onarpena izan behar du. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez 1000€ izango da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Ezingo du errentaren % 50 gainditu, eta gehienez 250 eurokoa izango da, 12 hilabeterako.

• Pertsona bakarraren kasuan

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
	19.000	% 50	250 €
19.000,01	22.000	% 40	200 €
22.000,01	25.000	% 30	150 €
25.000,01	28.000	% 20	100 €

• Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute

Diru-sarrerak		Dirulaguntza	Gehienezko diru laguntza
Kopurutik	Kopururaino		
	28.000	% 20	250 €
28.000,01	31.000	% 40	200 €
31.000,01	33.000	% 30	150 €
33.000,01	35.000	% 20	100 €

Alokairua partekatua denean: eskatzaile bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Zumaia

Zumaiaiko herrian etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia 2025eko abuztuaren 4an argitaratu zen, eta irailaren 30 arte izan zen eskabideak aurkezteko epea. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte bitarte izatea.
- Errolda: bizikidetza-unitateko kide guztiek egon behar dute etxebizitzan erroldatuta. Gainera, Zumaiaiko herrian erroldatuta egon izan beharko dute, gutxienez 6 hilabetean.
- Diru-sarrera, gehienez:
 - Onuradun bakarra: 28.000 €
 - Bi onuradun edo gehiago: 38.000 €
- Diruz lagunduko den etxebizitzak Zumaiaiko udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du. Gehienezko errenta zehaztugabea da. Ez da baliagarri logelen alokairua ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez 150 eurokoa izango da.

• Pertsona bakarraren kasuan

Diru-sarrerak		Dirulaguntza
Kopurutik	Kopururaino	
	15.000,00	% 60
15.000,01	21.000,00	% 50
21.000,01	30.000,00	% 45
30.000,00	38.000,00	% 35

Alokairua partekatua denean: eskatzaile bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Zumarraga

Zumarragako gazteen emantzipazioari diru-laguntzak emateko 2025eko deialdia 2025eko otsailaren 27an argitaratu zen. Laguntza hau baterazina da helburu berarekin ematen diren bestelako dirulaguntzekin.

Baldintzak:

- Adina: 18 eta 35 urte bitarte izatea.
- Errolda: bizikidetza-unitateko kide guztiek egon behar dute etxebizitzan erroldatuta. Zumarragan erroldatuta egon behar dute.
- Diru-sarrera, gehienez:
 - Onuradun bakarra: 28.000 €
 - Bi onuradun edo gehiago: 39.000 €
- Diruz lagunduko den etxebizitzak Zumarragako udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du. Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa, gehienez 600 eurokoa izan daiteke.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK GIPUZKOAKO HERRIETAN

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskatzailearen errentaren arabera, alokairu-errentaren % jakin batekoa izango da laguntza. Gehienez, alokairu prezioaren % 50koa izango da, hilean 250 euro muga izango duelarik.





Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Kultura, Lankidetz, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO